Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5158

AGINDUA, 2010eko irailaren 3koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinen bidez 2010eko ekitaldian deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko patata hazi, biltegiratu eta merkaturatzeko laguntzak emateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko patata hazi, biltegiratu eta merkaturatzeko laguntzei buruzko azaroaren 21eko 236/2006 Dekretuaren bidez (azaroaren 13ko 197/2007 Dekretuak aldatu zuen 236/2006 Dekretua), arautu egin nahi dira kalitatezko nahiz ekoizpen ekologikoko arauek edo zigiluek babestutako patataren hazkundea, biltegiratzea eta merkaturatzea hobetzera bideratutako jarduerak egiteko laguntzak emateko baldintzak, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Dekretu horretako 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntzen deialdia urtero egingo da, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren agindu baten bitartez. Deialdi horretan, dagokion kanpainarako eskabideak aurkezteko epea ezarriko da, bai eta dagokion ekitaldirako dekretu horretan jasotako laguntzak finantzatzeko esleitutako aurrekontuaren zenbatekoa ere.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Araubideari buruz indarrean dauden legexedapenen Testu Bategina onetsi duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 2010eko Aurrekontu Orokorrak onetsi dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legeak bide ematen dute aurtengo laguntzen deialdia egiteko.

Horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen bidez, 2010eko ekitaldirako deialdia egin nahi da Euskal Autonomia Erkidegoko patata hazi, biltegiratu eta merkaturatzeko laguntzei buruzko azaroaren 21eko 236/2006 Dekretuan ezarritako laguntzak emateko.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

5158

ORDEN de 3 de setiembre de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se procede a la convocatoria, para el ejercicio 2010, de ayudas al cultivo, almacenamiento y comercialización de la patata de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Decreto 236/2006, de 21 de noviembre, de ayudas al cultivo, almacenamiento y comercialización de la patata de la Comunidad Autónoma del País Vasco, modificado por el Decreto 197/2007, de 13 de noviembre, tiene por objeto regular la concesión de ayudas económicas para la realización de actividades dirigidas a la mejora del cultivo, del almacenamiento, de la comercialización de la patata, y al incremento de la producción de patata amparada por sellos o normas de calidad o de producción ecológica en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En el artículo 8 de dicho Decreto se establece que se procederá a la convocatoria de dichas ayudas anualmente, mediante Orden del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación; y que en dicha convocatoria se establecerá el plazo de presentación de solicitudes para la correspondiente campaña, así como el importe de la asignación presupuestaria destinada a financiar las ayudas recogidas en este Decreto para el ejercicio correspondiente.

Por otra parte, el Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi y la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, permiten realizar la convocatoria de las ayudas correspondientes a este año.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Objeto.

La presente Orden tiene por objeto proceder a la convocatoria, para el ejercicio 2010, de las ayudas establecidas en el Decreto 236/2006, de 21 de noviembre, de ayudas al cultivo, almacenamiento y comercialización de la patata de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Bigarrena.– Diru-laguntzen zenbateko osoa.

1.– Agindu honekin bat eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura 2010eko ekitaldian eman beharreko laguntzen zenbatekoa, guztira, 1.350.000 eurokoa izango da. Horietatik 945.000 euro 2010eko ekitaldiaren kontura izango dira, eta 405.000 euro, berriz, 2011ko ekitaldiko kreditu-konpromiso gisa jasoko dira.

2.– Eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan harturik, artikulu honetan adierazitako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailean agortu ez den aurrekonturik izanez gero, eta laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpen batek emango du horren berri.

Hirugarrena.– Epea.

Laguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteko hilabeteko epea egongo da, agindu hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 3a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

Segundo.– Volumen total de las ayudas.

1.– El volumen total de las ayudas a conceder durante el ejercicio 2010 en virtud de la presente Orden con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco ascenderá a la cantidad de 1.350.000 euros, de los cuales 945.000 euros serán con cargo al ejercicio 2010 y 405.000 euros como crédito de compromiso del ejercicio 2011.

2.– El importe global consignado en este artículo podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural.

Tercero.– Plazo.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes desde el día siguiente de la publicación de la presente Orden.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el plazo de un mes o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de setiembre de 2010.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.